



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko urriaren 21a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, ordainsari publikoen mugei eta bateraezintasunei buruzkoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzekoa. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 109. eta 126. artikulua aldatzekoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioari buruzko txosten bat. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuna eman diezaien Toki Azpiegituren Planera eta Errepideen III. Plan Zuzendarira bideratutako baliabide ekonomikoei. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sala dezan Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin sinatutako hitzarmena, 2011ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kutxaren Entitate Sortzaileen Batzarra desegiteko bidea eman dezan. Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu du (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Europar Batasuna premiatzen da finantza-transakzioen gaineko tasa bat abian jar dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen behin-behinekotasuna murriztu dezan eta burutzak berrikus ditzan. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urteroko Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legea taxutzerakoan Nafarroako hezkuntzarako aurrekontu-esleipenaren goranzko progresioa berma dezan. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Tracasarentzat hegazkin bat eta material fotografikoa erosteko eginiko inbertsioari eta horren errentagarritasun-mailari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egin (18. or.).
- Galdera, etxebizitza libre edota prezio mugatukoetarako laguntzak edo kenkari fiskalak indarrean egoteari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egin (18. or.).
- Galdera, administrazio kontseiluetara joateagatik ordainsariak edo dietak kobratzen dituzten Gobernuo kide eta zuzendaritza-karguei buruzkoa, Santiago Cervera Soto jaunak egin (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak eremu mistoari dagokionez aurreikusten du euskara irakaskuntzan sartzeari mailaz maila, gero eta gehiago, eta nahikotasunez egitea, ikastetxeetan eskatzen dutenendako euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz, halako moduan non oinarrizko eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan ahalko baitute. Eremu ez-euskaldunari dagokionez, ordea, soilik aurreikusten da euskararen irakaskuntza bultzatzea eta, hala behar izanez gero, hein batean finantzatzea.

Legea onetsi zenetik mende laurdena iragan da, eta argi dago, izan diren gizarte-aldaketei erreparatuta, legea aldatzea komeniko litzatekeela. Eremu ez-euskaldunean bada euskaraz ikasteko eskaria, sarritan zailtasunak izan dituen erantzun bat eman dakion eta erantzun beharrekoa; izan ere, ez dago inolako arrazoirik herritarren eskubi-deak eremu batetik bestera alda daitezen, hizkuntza-ofizialtasunaren araubidea berbera baita bi eremu horietan. Hortaz, legedia egokitu eta berrikusi beharra dago, Administrazioak erantzun diezaien eremu ez euskaldunean dagoen gizarte-eskariari, eremu mistoan egiten den modu bertsuan hain zuzen ere, bai hezkuntza sistema-ren barruan bai sistema-ren kanpoan.

Artikulu bakarra.

1. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko II. tituluko III. kapituluak ondoko izenburua izanen du: "Irakaskuntza eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean"

2. Foru lege horretako 25. artikulua honela idatzita geldituko da:

"1. Euskara irakaskuntzan sartzeari mailaz maila, gero eta gehiago, eta nahikotasunez egiten da, ikastetxeetan eskatzen dutenendako euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz.

2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten.

3. Euskararen irakaskuntza botere publikoek bultzatua izanen da, eta hala behar izanez gero, haiek osoki edo partzialki finantzatua, sustapen eta promozio irizpideei jarraikiz eta eskariaren arabera."

3. Kendu egiten da foru lege horretako II. tituluko IV. kapituluak.

Azken xedapena.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Foru Lege proposamena, ordainsari publikoen mugei eta bateraezintasunei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du ordainsari publikoen mugei eta bateraezintasunei buruzko Foru Lege proposamena.

Kontuan hartuta Foru Lege proposamen horren 1., 2., 5., 6. eta 7. artikuluek onetsiak izateko gehiago osoa behar dutela proposamen osoari buruzko azken bozketan (artikulu horiek dira Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen, Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari goi karguen bateraezintasunei buruzko 19/1996 Foru Legearen, Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legearen eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen gainekoak), Erregelamenduko 152. artikulua rekin bat, aipatu proposamenetik 3. eta 4. artikuluen edukia bereizi da, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko 15/2004 Foru Legearen gainekoa, eta prozedura arruntari jarraikiz izapidetuko da foru lege proposamen ezberdintzat hartuta.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 152.3 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

1. Agintzea ordainsari publikoen mugei eta bateraezintasunei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Ordainsari publikoen mugei eta bateraezintasunei buruzko Foru Lege proposamena

Sektore publikoaren funtzionamendu zorrotz eta objektibo bat ziurtatu beharrak eragin du zenbait lege-xedapen onestea, goi karguen ordainsariak publizitate-printzipioaren nahiz jarduerari zor zaion arduraldi eskusiboko printzipioaren arabera ezartze aldera, kasuan kasuko bateraezintasunak ezarrita. Halere, denborak erakutsi du xedapen horiek opakotasunerako zenbait zirrikitu uzten dituztela zabalik ordainsariak jasotzeari dagokionez; hori dela-eta, komeni da zenbait aldaketa egitea, "kargu bat, soldata bat" printzipioa erabateko gardentasunez betetzen dela ziurtatzeko.

Bestalde, komeni da zenbait muga ezartzea, goi karguen ordainsariak karguarekin batera hartzen den erantzukizunaren arabekoak izan daitezten, bai eta gastu publikoari edozein kasutan exijitu beharreko austeritatearen arabekoak ere.

1. artikulua. Nafarroako Gobernuari eta haren lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 35. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzita geldituko baita:

"1. Nafarroako Gobernuo lehendakariaren lan-sariak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan finkatu-ko dira, berariaz eta zenbatekoa adierazita.

2. Nafarroako Gobernuo lehendakariak ez du Nafarroako Aurrekontu Orokorretan finkatuta ez dagoen beste diru kopururik jasoko lehendakari karguan edo hari lotutako beste batzuetan aritzea-gatik. Kide den beste organo edo erakundeen bil-kuretara joategatik dietak edo ordain ekonomikoak jasotzen baditu, diru kopuru horiek Foru Ogasu-nak sartu edo atxikiko ditu."

2. artikulua. Nafarroako Gobernuari eta haren lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 45. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzita geldituko baita:

"1. Nafarroako Gobernuo kontseilarien ordain-sariak ez dira inola ere izanen Nafarroako Gober-nuko lehendakariak jasotzen duena baina handia-goak, eta zenbatekoa espresuki jasoko da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean.

2. Nafarroako Gobernuo kontseilariak ez dute Nafarroako Aurrekontu Orokorretan finkatuta ez dagoen beste diru kopururik jasoko kontseilari kar-

guan edo hari lotutako beste batzuetan aritzeagatik. Kide diren beste organo edo instituzioen bilkuretara joategatik dietak edo ordain ekonomikoak jasotzen badituzte, diru kopuru horiek Foru Ogasunak sartu edo atxikiko ditu.”

3. artikulua. Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 5. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da, zeina honela idatzita geldituko baita:

“1. Kargu publiko gisa goi karguan aritzearekin bateragarri diren jardueretan aritzea galarazi gabe, ez du karguaren lansariaz aparte beste sari ekonomikorik jasoko, honako hauek salbu:

a) Egin behar dituen bidaia, egonaldi eta leku aldatzeen gastuen kalte-ordaina, indarra duen araudiari jarraituz.

b) Zein administrazio publikotatik datorren, haren legeriak onartzen dizkion ordainsari bateragarriak, goi karguak eszedentzia berezian edo zerbitzu berezietan diren funtzionarioak direnean.”

4. artikulua. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 111. artikulua aldatzen da, zeinari 4. idatz-zati berri bat gehituko baitzaio. Hartara, honela idatzita geldituko da:

“4. Administrazio Kontseiluko kideen eta Batzar Nagusiko kideen eta zuzendaritza-kideen ordainsariak publikoak izanen dira. Ezin izanen dira inola ere izan Nafarroako Gobernuko lehendakariak jasotzen dituenak baino handiagoak.”

5. artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 56. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da, zeina honela idatzita geldituko baita:

“1. Nafarroako toki entitateek beren kideentzat aurrekontuetan eslei ditzaketen kargu-jarduteagatik kalte-ordain eta ordainsari ezin izanen dituzte gainditu oro har ezarritako mugak, eta ezin izanen dira inola ere izan Nafarroako Gobernuko lehendakariak jasotzen dituenak baino handiagoak. Dedi-kazio eskusiboko edo partzialeko ordainsari finkeak jasotzen dituztenek ezin izanen dute jaso inolako diru-kopururik toki entitateak kasuko aurrekontuetan espresuki eta zenbatekoa adierazita halakotzat ezarritakoaz bestela, bere kargua betetzeagatik edo bere karguari lotuta leudekeen beste batzuegatik. Kide direnen beste organo edo instituzioen bilkuretara joategatik dietak edo ordain ekonomikoak jasotzen baditu, diru kopuru horiek toki ogasunak sartu edo atxikiko ditu.”

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Krisi ekonomikoko egoera batean inoiz baino are beharrezkoagoak dira kalitatezko zerbitzu publikoak, behar bezala garatuak eta bideratuak, herritarrei ziurtatzea bere eskubide sozialak baliatu ahal izatea. Justizia, berdintasuna eta osasun-, hezkuntza- nahiz gizarteratze-zerbitzu garatu bat jasotzeko pertsona guztiek duten eskubidea ezin da egon gorabehera ekonomikoen mende, halako moduan non zerbitzu horien kalitatea eta aurrerabidea urtez urte kolokan geratzen baitira Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legea taxutu, prestatu eta betetzeko prozesuan.

Gaurkotasun handiko auzia da honako hau. Ongizatearen gizartearen zutabeei –hala nola, hezkuntzari, osasungintzari eta politika sozialari– zuzenean eraginen dieten murrizketa hauek gero eta kezka handiagoa eragiten dute herritarrengan,

eta eztabaidagai bihurtu dute zer gizarte-eredu lortu nahi dugun.

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldean oso argi dugu; zerbitzu publikoen pribatizazio-prozesu ororen aurka gaude, eta uste dugu ongizatearen gizarte baten zutabeak ezin direla izan ez murrizgarriak ez atzera jotzeko modukoak aurrekontu-kontusailetan. Hori dela-eta, Nafarroako Toki Ogasunari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamen honen xedea da erakunde publikoen jardunean lehentasuna izan dezaten ongizatearen gizartearen zutabeek eta ziurtatzea administrazio publikoek lehentasuna ematen diotela, bere jarduketak taxutzen dituztenean eta baliabideak esleitu behar dituztenean, herritarren gizarte-kalitatea hobetzeari. Orobat, ongizatearen gizarte bateko zutabeak finantzatze aldera Europako herrialde garatuenek, BPGari dagokionez, bideratzen dituzten baliabideen eta Nafarroan bideratzen ditugunen arteko aldea ikusita, Foru Lege proposamen honen bitartez legezko estaldura emanen zaio herritarren gehiengoaren borondateari; alegia, legez ziurtatzea urtez urte aurrerabidea egiten dela osasungintzako, hezkuntzako eta politika sozialetako zerbitzu publikoen kalitatean eta hedaduran.

Hortaz, talde honek Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkezten du.

1. artikulua. 1 bis idatz-zati berria gehituko zaio Nafarroako Toki Ogasunari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko II. tituluko –Nafarroako Aurrekontu Orokorrek– I. kapituluko 1. ataleko 34. artikuluari –Prestatzeko prozedura–, zeina honela idatzia geldituko baita:

“1 bis. Nafarroako Gobernuak, urtez urte, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua taxutzeko prozesuan, aurrekontu esleipenaren progresio positiboa ziurtatuko du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako, hezkuntza publikoaren adierazpide orotarako eta politika sozialari lotutako kontusailetarako, herritarrentzako prestazioak etengabe sendotze, hobetze eta handitze aldera.”

2. artikulua. 1 bis idatz-zati berria gehituko zaio Nafarroako Toki Ogasunari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko II. tituluko –Nafarroako Aurrekontu Orokorrek– I. kapituluko 3. ataleko 51.

artikuluari –Helburuen sistema–, zeina honela idatzia geldituko baita:

“1 bis. Lortzen lehentasuna duten helburuak dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari, hezkuntza publikoaren adierazpide guztiei eta politika sozialaren kontusailei buruzko jarduketei eta kontusailei atxikitakoak.”

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren arauak ezar ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Egoera ekonomiko zail honetan, herritarron ongizatearekin lotutako arloak dira bereziki zaindu behar direnak. Krisiaren ondorioak herritarrek ordain ditzaten saiheste aldera, arlo publikoa sendotzeko garaia da, garapen ekonomiko eta sozialaren pizgarri gisa. Herritarrek kezkatutako bizi dituzte azken asteotako murrizketak, oinarrizkoak zaizkien zerbitzu publikoen kalitatea kaltetua izate-

ko arriskua sumatzen baitute. Eta, horren aurrean, Parlamentu honek pertsonen ongizatearekin lotutako arloak bereziki babesteko eta horiek garatzeko behar diren baliabideak bermatzeko konpromisoa hartu beharko luke.

Osasun sistema publikoa dugu pertsona guztien ongizatearekin lotura estua duen zerbitzu nagusietako bat. Arlo honetan, jendarteak kezkatutik bizi izan ditu azken urteetan areagotu den deribaziorako joera, azken hilabeteotako langileria-aren murrizketa eta azken asteotan egindako hainbat egokitzapen eta berrantolaketa, zerbitzu- en kalitatean eta eskaintzako arretan eragina izango dutelakoan. 2012ko aurrekontuei begira ere, osasun arloan murrizketa joera berberarekin jarraitzeko arriskua arduraz bizi du jendarteak. Egoera honen aurrean, herritarren ordezkarien bilgune gisa, Parlamentu honek badu zer esanik.

Ildo horretatik, gogora ekarri nahi dugu Parlamentu honek irailaren 20ko Osoko Bilkuran osasungintza publikoaren alde adierazitako konpromiso irmoa. Bertan, osasungintza publikoaren garapen gorena lortzearen alde agertu zen Biltzarrak, bai zerbitzuaren kalitateari, bai eskaintzen diren prestazioen zabalpenari zegokionez ere, haurdunaldiaren borondatezko etetea barne. Gai honekiko Parlamentuaren jarrera ezin zen bestelakoa izan, Osasun sistema publikoa baita herritarrek hoberen baloratzen duten zerbitzuetako bat, eta honek horrela izaten jarri dezan herritarrek horren bermea behar dutelakoan gaude. Eta berme hori, besteak beste, lege bidez lortuko da. Horrexegatik egin dugu Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legea aldatzeko honako proposamena.

Artikulu bakarra. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legean, Finantziarioaren atalean, 75. artikuluan, puntu berri baten gehiketa, 75. 1 bis izango dena. Honelaxe idatzita geratuko da:

75. artikulua.

1. bis. Nafarroako Gobernuak, urterik urte, Nafarroako Aurrekontu Orokorren Lege Proiektua taxutzerakoan, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbiderako aurrekontu esleipenaren progresioa bermatuko du, herritarrei eskainiko zaizkien presazioak etengabe sendotu, hobetu eta zabaltze aldera.

Azken xedapenetan lehenengoa. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio lege hau garatze eta aplikatze aldera behar diren erregelamenduzko arauak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da legea indarrean.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 109. eta 126. artikulua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du ordainsari publikoen mugei eta bateraezintasunei buruzko Foru Lege proposamena.

Kontuan hartuta Foru Lege proposamen horren 1., 2., 5., 6. eta 7. artikuluek onetsiak izateko gehiengo osoa behar dutela proposamen osoari buruzko azken bozketan (artikulu horiek dira Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen, Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari buruzko 19/1996 Foru Legearen, Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legearen eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen gainekoak), Erregelamenduko 152. artikulua-rekin bat, aipatu proposamenetik 3. eta 4. artikuluen edukia bereizi da, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko 15/2004 Foru Legearen gainekoa, eta prozedura arruntari jarraikiz izapidetuko da foru lege proposamen ezberdintzat hartuta.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 152.3 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 109. eta 126. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 109. eta 126. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena

Sektore publikoaren funtzionamendu zorrotz eta objektibo bat ziurtatu beharrak eragin du zenbait lege-xedapen onestea, goi karguen ordainsariak publikitate-printzipioaren nahiz jarduerari zor zaion arduraldi eskusiboko printzipioaren arabera ezartze aldera, kasuan kasuko bateraezintasunak ezarrita. Halere, denborak erakutsi du xedapen horiek opakotasunerako zenbait zirrikitu uzten dituztela zabalik ordainsariak jasotzeari dagokionez; hori dela-eta, komeni da zenbait aldaketa egitea, "kargu bat, soldata bat" printzipioa erabateko gardentasunez betetzen dela ziurtatzeko.

Bestalde, komeni da zenbait muga ezartzea, goi karguen ordainsariak karguarekin batera hartzen den erantzukizunaren arabekoak izan daitezen, bai eta gastu publikoari edozein kasutan exijitu beharreko austeritatearen arabekoak ere.

1. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 109. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da, zeina honela idatzita geldituko baita:

"1. Erakunde publikoetako zuzendaritza-kideek Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko kasuko

foru legeetan ageri diren ordainsariak jasoko dituzte, zeinak ez baitira inola ere izanen Nafarroako Gobernuo lehendakariak jasotzen dituenak baino handiagoak, eta ez dute horietan ezarritakoaz bestelako zenbatekorik jasoko bere karguan aritzeagatik edo karguari atxikita leudekeen bestee-tan aritzeagatik. Kide diren beste organo edo instituzioen bilkuretara joategatik dietak edo ordain ekonomikoak jasotzen badituzte, diru kopuru horiek Foru Ogasunak sartu edo atxikiko ditu.”

2. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 126. artikulua aldatzen da, zeinari 5. idatz-zati berri bat gehituko baitzaio. Hartara, honela idatzita geldituko da:

“5. Fundazio publikoetako zuzendaritza-kideen ordainsariak fundazio horien aurrekontuetan jaso beharko dira. Ezin izanen dira inola ere izan erakunde publikoetako zuzendaritza-kideentzat ezarritakoak baino handiagoak, eta publiko egin beharko dira.”

Xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioari buruzko txosten bat.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aurkez dezan babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioari buruzko txosten bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioaren gaineko azter-

lan bat egiteari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Krisi ekonomikoaren eta bereziki "higiezinaren burbuila" deitu izan denaren ondorioz, etxebizitzaren prezio gainbalioetsia doitu egin da azken urteotan.

Gaur, etxebizitza librearen prezioa jaitsi da, eta etxebizitza babestu-moten preziora hurbildu.

Higiezinaren krisiaren eta krisi ekonomikoaren beste ondorio batek eragin zuzena izan du erakuntzaren egiazko prezioan, aldatu egin baitira lanekuaren prezioa eta enpresen etekin-marjinak. Aldaketa horiek babes ofizialeko etxebizitzari ere eragiten diete.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bi hilabeteko epean txosten bat aurkez dezan, jakiteko etxebizitzaren eraikuntza-sektorean izandako aldaketek zer ondorio ekarri dituzten eta jakiteko aldaketa horiek ikusita logikoa ote den babes ofizialeko etxebizitzaren moduluen prezioaren jaitsiera planteatzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuna eman diezaien Toki Azpiegituren Planera eta Errepideen III. Plan Zuzendarira bideratutako baliabide ekonomikoei.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehentasuna eman diezaien Toki Azpiegituren Planera eta Errepideen III. Plan Zuzendarira bideratutako baliabide ekonomikoei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, azpiegitura handiak izozteari eta Errepideen III. Planean jasotako toki azpiegituren plana lehenesteari buruzko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Departamentuek iragarri dutenez, indarrean diren zenbait azpiegitura-planetan programatutako eta konprometitutako jarduketak murriztu edo zuzenean ezabatuko dira. Murrizketa horiek ukitzen dituzten planetako jarduketa eta obra gehienak ikusita, horien ezaugarriek eta baldintzek enplegu eta ekonomia egoera larri honi erantzuteko balio dezakete, zeren inbertsio mugatu batzuk eginda baliagarriak izan baitaitezke jarduera ekonomikoa eta laneskua sortzeko. Kontseilariak –bereziki Sustapenekoak– egindako adierazpenen arabera, helburu nagusia toki- eta foru-errepideen sarea mantendu, hobetu eta handitzea duen Errepideei buruzko III. Plana eta enparauak izanen

omen dira erabateko murrizketa pairatuko dutenak hurrengo ekitaldiko aurreikuspenetan.

Orobat ikusten ari gara zailtasunak daudela toki azpiegituren plana betetzeko eta garatzeko, hein batean soilik ari baita plana betetzen.

Iragarpen horiek egiteaz batera, Gobernuak adierazi du azpiegitura handiekin aurrera egiteko asmoa duela, zailtasun ekonomikoak eta aplikatutako murrizketa sozialak gorabehera; esaterako, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea, Abiadura Handiko Treneko obrak, Segurtasunaren Hiria, hondakinen errauste-planta, eta abar, beste beharizan batzuetatik kendutako ehunka milioi hartuko dituztenak, nahiz eta zalantzazkoa izan eragin zuzen eta egiazkoa izanen duten langabeziari, jarduera ekonomikoa eta diru-sarreraren sorrerari dagokienez bizi dugun egungo egoera zailean.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehentasuna eman diezaien azpiegitura publikoetako inbertsioetara bideratutako baliabide ekonomikoei –esaterako, Toki Azpiegituren Planari edo Errepideen III. Planari lotutakoek–, beren ezaugarriengatik, kostu mugatuengatik, laneskuagatik eta dibertsifikazioarengatik, izaera sozialagoa duten jarduketak eta gaurko krisi ekonomikoko egoeran enplegu eta jarduera gehiagoren sortzaile direlakoan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du izoztu ditzan une honetan dugun ahalmen ekonomiko eskasa xurgatuko luketen eta erabaki proposamen honen lehen puntuan aipatzen direnak arriskuan jarriko lituzketen azpiegitura handiak. Atzerapena behar adina luzatuko da denboran, harik eta, aurrekontu arloko lehentasunak (hala nola, gizarte-prestazioen bermea, enpleguaren sorrera eta jarduera ekonomikoaren bultzada) kaltetu gabe, egoera ekonomikoa horiei berriz ekitea uzten duen arte.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da sala dezan Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin sinatutako hitzarmena, 2011ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita sala dezan Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin sinatutako hitzarmena, 2011ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Lan-erreformaren legeak beste aldaketa bat egin du gaixotasuna edo istripua dela-eta atsedean hartzeko lan-eskubidean, zeina Konstituzioak aitortu "eta aldi baterako ezintasun" izenez ezagutzen baita. Alderdiri deigarrietako bat da hementzigarren xedapen gehigarriko bosgarren idatzatzen ezartzen dena; izan ere, horren bidez ezartzen denez, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari atxikitako mediku ikuskatzaileek Osasun Zerbitzu Publikoen Ikuskatzailearen eskumen berberak izanen dituzte, aldi baterako ezintasun kasuetan medikuaren alta ematearen ondorioetarako. Nafarroan, horrek esan nahi du alde batera uztea Nafarroako Osasun Zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Medikuen irizpidea, haiek baitira baja eta alta agintzen dutenak, eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko mediku ikuskatzaileak ordeztzea.

Halatan, bost hilabete iraganda, Nafarroako Gobernuak 2 milioi euroko lankidetzak hitzarmen

bat sinatu zuen Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin, berariazko programa bat ezartze aldera, aldi baterako ezintasunaren prestazioa hobetzeko zenbait kudeaketa-estrategia garatzen dituen eta iraupen laburreko prozesuetako jokatzea aztertzen duena. Hitzarmen hori 2011ko uztailearen 5eko 159. EAOn argitaratu zen.

1998tik aitzina, Zerga eta Politika Fiskaleko Kontseiluaren erabakiz, Aldi Baterako Ezintasunaren Egonkortasun Programa bat ezarri zen osasuna finantzatzeko sistemaren esparruaren barruan, eta horrek diru-sarrera handiak ekarri zituzten kasuko akordioak sinatu zituzten autonomia erkidegoei. UPNren Gobernuak orduan erabaki zuen Nafarroak, bere finantza-araubide berezia zela-eta, ez zuela ezarriko gisa horretako konpromisorik Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaz landa, nahiz eta solidarioki mantenduko zituen aldi baterako ezintasunari dagozkion kudeaketa eta kontrola, Osasun Sistema Publikoko medikuen eta ikuskatzaileen bidez egiten ari zena, eta hori ez zen behin ere eten.

Sinatutako hitzarmeneko klausulen eta hitzartutako programaren arabera, Nafarroako Gobernuak baimena ematen die Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin sinatutako medikuei Nafarroako Aldi Baterako datu-base informatizatuan sartzeko; Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren agindupean lan egiten jartzen du Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko ikuskatzaileen ekipoa; Nafarroako Osasun Zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Medikuen jardun profesionalarekiko mesfidantza ezartzen du –izan ere, fakultatibo horien gaineko kontrol- eta ebaluazio-tresna bereziak ezartzen ditu–, eta aintzat hartzen du Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin sinatutako medikuei Nafarroako Osasun Zerbitzuan herritar bakoitzak dituen historial klinikoaren lan-informazioa eta informazio klinikoaren helarazteko prozedurak aztertzei aukera.

Hitzarmena uste faltsu eta interesatu batean oinarritzen da (aldi baterako ezintasuna behar duen langile bat ustezko iruzurgilea delako eta aldi baterako ezintasuna sinatzen duen fakultatiboa profesional arduragabea delako ustea, hain zuzen ere); are gehiago, estigmatizatu egiten ditu prestazio-epe laburrak behar dituzten kasuak eta diagnostiko psikiatrikoak eragindakoak, zeinak, esku-eran ditugun azterlanen arabera, enpresetan lana

antolatzeke baldintzei zor zaizkien neurri handi batean.

Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak eskumenak eta baliabideak emate hori bikaintzat jo omen dute horren aitzindariak, zeren Nafarroako Gobernuak egiten duen Zerbitzu Publikoen Kalitatearen V. Sarira aurkeztu baitute.

Horregatik guztiagatik, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkezten du, eztabaidatu eta bozka dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Segurantzako Institutu

Nazionalarekin sinatutako hitzarmena sala dezan, 2011ko abenduaren 31tik aitzinako ondorioekin.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du osasun publikoa finantzatzeko formula engainagarriak ezartzearen aurka dagoela, osasun arloko esku-menak eta Foru Komunitateko Ogasunaren esku-menak aurkako eraso bat ezkatuz baitute.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromiso irmoa, zalantzarik gabea eta lehentasunezkoa mantentzeko dezan Nafarroako langileen osasunaren alde.

Iruñean, 2011ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kutzaren Entitate Sortzaileen Batzarra desegiteko bidea eman dezan.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Kutzaren Entitate Sortzaileen Batzarra desegiteko bidea eman dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Kutzaren Entitate Sortzaileen Batzarra desegitea eskatzen duen ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Kutxa Banca Cívican sartu bidena haren estatutuak aldatu dira berriki, eta "Entitate Sortzaileen Batzarra" izenekoa sortu zen.

Organo horretan, Nafarroako Gobernuko, Iruñeko udaleko eta Foru Parlamentuko zenbait kargu daude, entitatearen zenbait lehendakari-ohirekin batera.

Nafarroako Kutzaren estatutuetan zenbait egin-kizun "aholku-emaile" esleitzen zaizkio Batzar horri, lehenago entitatearen Kontseiluari, zeinean Nafarroako Gobernuak parte hartzen baitzuen, esleitutakoez oso bestelakoak.

Halere, Batzarri esleitutako zeregin generiko hori gorabehera, eta Batzar horretan jardun behar dutenak kargu publikoak diren arren eta organo horretan hain zuzen ere kargu publikoak direlako sartu diren arren, Nafarroako gizarteak ez daki zeintzuk diren Batzarren berriazko jarduerak eta eginkizunak. Adibide gutxi batzuk jartzearen: inork ere ez daki zertan gauzatu diren zeregin aholku-emaile horiek, Nafarroako Kutzari eta Banca Cíviciari ikuspuntu sozial eta politikotik eragin dioten zenbait auzi oso garrantzitsuri dagokienez –FROB-Banku Sektorea Era Ordenatuan Berregituratzeko Funtse Banca Cíviciaren kapitalean sartzea, Nafarroako Kutzaren Gizarte Ekintzaren parte garrantzitsu bat ziur aski bertan behera uztea edo bankuaren akzioen salmenta-eskaintza publikoa egitean jarritako prezioa–. Ez dira jasota ageri sinatutako txosten aholku-emaileak, eta ez dago azalpen formal edo informalki Batzarra osatzen duten kideei buruz.

Agerikoa da ezen, nahiz eta entitateko ustezko aholku-emaileak kargu publiko izateagatik diren batzarkide, ez dutela behar bezala bete eginkizun hori, edo egoerak eskatzen zuen kontu-emate eta gardentasun betebeharrak aintzat hartu gabe bete dela eginkizun hori.

Alegia, politizazio onartezin eta anakroniko bat gertatu da, bai ikuspuntu orokor batetik bai entitatearen gobernu onaren ikuspuntu zehatzetik ikusita. De facto, "Entitate Sortzaileen Batzarra" izenekoak, Nafarroako Kutzaren jarduerak Foru Komunitateko gizarteari hobeki atxikitzen urrun, despolitizazioaren eta independentzia politikoaren

oinarrizko printzipioak urratzen ditu entitate arautuei dagokienez, eta bere ustezko eginkizunak opakutasun-esparru onartezin batean garatu ditu.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Kutzaren "Entitate Sortzaileen Batzarra" deiturikoa desegiteko bidea eman dezan, Nafarroako Kuxari dagokionez dituen eskumen politikoak eta ikuskatzaileak baliatuta.

Iruñean, 2011ko urriaren 11n

Eleduna: Santiago Cervera Soto

Mozioa. Horren bidez, Europar Batasuna premiatzen da finantza-transakzioen gaineko tasa bat abian jar dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Europar Batasuna premiatzen baita finantza-transakzioen gaineko tasa bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Sozialistak parlamentu-taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, finantza-transakzioen gaineko tasa bat abian jartzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nazioartean adostasun oso zabala dago esaterakoan finantza-sektorearen gehiegikeriak eta erregulazio-eza direla, zalantzarik gabe, Europako ekonomiak egun bizi duen krisiaren arduradunak.

Halere, finantza-jarduera, jaitsi beharrean, gero eta handiagoa da. Azken hogeita hamar urteotan % 400 hazi da, eta, hartara, egun mugitzen den diru-kopuruak munduko BPGaren halako 70 egiten du. Hazkunde ikusgarri horren parterik handiena finantza-deribatuei zor zaie ia osorik, eta tresna horiek espekulatiboak dira funtsean. 4 bilioi dolar negoziatzen dira egunero dibisa-operazioetan, eta horietako % 2 soilik daude merkataritza-operazioei lotuta. Gehienak maiztasun handiko operazioak dira, dirua are egun berean ere zenbait alditan mugiarazten duten bitartekari handiek eginak. Eta kezkarriena da finantza hutseko ekonomia horrek hazten jarraitzen duela, baita egungo krisian ere.

Hortaz, ekonomia ez-produktibo baten aurrean gaude, egiazko merkataritza-operazioetatik at, eta horri buruz bi gauza esan daitezke: bata, krisiaren oinarri-oinarrizko arduraduna izan dela; eta bestea, behar bezala erregulatu eta zergapetuta egotetik urrun dagoela.

Horregatik guztiagatik, Parlamentu-talde Sozialistak ondoko mozioa aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak ulertzen du finantza-sektorea dela egungo krisi ekonomikoaren arduradun nagusia eta, hortaz, krisiaren ondorioen aurrean nolabaiteko erantzunen bat eman behar duela.

2. Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio finantza-transakzioen gaineko tasa bat, akzio, bono, dibisa eta finantza-deribatuen trukeei aplikatua, sortu eta ordainarazteari. Bildutako dirua erabiliko da txirotasunari aurre egiteko, klima-aldaketari aurre egiteko, zerbitzu publikoak eta enplegua babesteko eta munduko finantza-sistemaren egonkortasuna sustatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasuna eta hura osatzen duten estatuetako gobernuak premiatzen ditu finantza-transakzioen gaineko tasa hori ezar dezaten Europan, NBEren babespean ondoren munduan ezartzeko lehen pauso gisa.

Iruñean, 2011ko urriaren 13an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen behin-behinekotasuna murriztu dezan eta burutzak berrikus ditzan.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen behin-behinekotasuna murriztu dezan eta burutzak berrikus ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatutakoari jarraikiz, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan urriaren 6an lan-saio bat burutu genuen Osasun Batzordean, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidean ordezkaturik dauden zazpi sindikatu nagusiekin (SATSE, SAE, LAB, CCOO, ELA, UGT eta SMN), parlamentu-talde honek berak eskatuta. Lan-saioaren helburu nagusia honakoa zen: Osasun Departamentuak iragarritako egokitzapen eta murrizketek zerbitzuaren kalitatean eta langilerian izan dezaketen eraginaz euren hausnarketa eta irakurketa ezagutzeko.

Ildo horretatik, sindikatu bakoitzak bere ikuspegi eman zuen Osasunbideko langileria-egoeraz eta lan baldintzez. Sindikatu batzuk korporatiboak eta besteak orokorrak izan arren, ezberdintasunak ezberdintasun, antzeko kezkek agertarazi zituzten beraien azalpenetan.

Lan-saio horretan behin baino gehiagotan azalderatu zen kezketako bat langileria-egoeraren behin-behinekotasun maila izan zen. Lan-saioan agertu ziren datuen arabera, Osasunbideak 10.500 langile ditu, eta horien % 43,7k behin-behineko kontratua dauka. Agerikoa denez, kopuru hori ez litzateke sostengagarri izanen beste edozein enpresatan. Gainera, horrekin batera langile finkoen batezbesteko profilaren inguruko datuak ere mahaigaineratu ziren. Deigarriena, adinari dagokiona, langile finkoen % 44 51 urtetik gorakoa baita. Gainera, horien % 7,2k 61 urte edo gehiago dauka.

Behin-behinekotasun tasa altuak eta langileen profilak berehalako erantzuna eskatzen du, gure ustez. Batetik, lanpostu askotan dagoen txandaketa askoz ere garestiago suertatzen delako, langile askok 50 kontratutik gora metatzen baitituzte urtean zehar. Bestetik, langileria-egoeraren egonkortasunak eragin zuzena daukalako bere egoera eta lan baldintzetan eta, hortaz, zerbitzuen kalitatean. Eta, azkenik, langile finkoen batezbesteko adinak belaualdi erreleboa iragartzen duelako.

Beste alde batetik, aipatu lan-saioan goi karguen eta buruzagitzen izendapenez eta kudeaketaz ere hitz egin zen. Dirudenez, eta hainbat sindikatuk emandako azalpenen arabera, arlo honetan ez

da murrizketarik egon, ezta iragarri ere. Baliabideen optimizazioari begira Osasun Departamentua egiten ari den berrantolaketan, hasteko, buruzagitza horiek guztiak beharrezkoak diren aztertu beharko litzateke, eta beharrezkoak ez direnak bertan behera utzi. Badago, gainera, are kezgarriago den gai bat: urteetan izendapen librea erabili izan da eta erabiltzen da, oraindik ere, ehundaka buruzagitza esleitzeko. Ezinbestekoa da, behingoz, lanpostu hauek profesionalizatzea eta meritu-konkurtoaren bidezko prozedura ezartzea, enplegu publikoak izan behar duen gardentasuna lortzea aldera.

Argi eta garbi, osasun zerbitzu publikoko langileriaren kudeaketak eta egoerak lotura zuzena daukate sistemaren kalitatearekin eta herritarrei eskaintzen zaizkien prestazio eta arretarekin. Eta arlo hori are garrantzitsuagoa da une honetan, azken asteotan Osasun Departamentuak ezarri eta iragarri dituen neurri murriztaileak aintzat hartzen baditugu. Ildo horretatik aurkezten dugu honako ebazpen proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideko langileriaren behin-behinekotasuna murrizteko konpromisoa har dezan. Horretarako, plangintza bat burutuko du, helburu neurgarriak, epeak eta tresnak zehaztuz. Ildo horretatik, sarbide prozedurak arinduko ditu, betiere, oposizio edo meritu-konkurtoaren bidea erabiliz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasunbideko buruzagitza kopurua berriki dezan eta kudeaketan beharrezkoak ez direnak bertan behera utz ditzan. Era berean, Nafarroako Gobernuak izendapen librea erabiltzeari utziko dio Osasunbideko buruzagitzak esleitzerakoan, eta lanpostu horien profesionalizazioa sustatuko du, meritu-konkurtoaren bidea erabiliz.

Iruñean, 2011ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urteroko Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legea taxutzerakoan Nafarroako hezkuntzarako aurrekontu-esleipenaren goranzko progresioa berma dezan.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urteroko Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legea taxutzerakoan Nafarroako hezkuntzarako aurrekontu-esleipenaren goranzko progresioa berma dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Foru Erkidegoak ez du Hezkuntzaren Oinarrizko Legerik (Ley de Base de Educación). Hori dela eta, Estatu Espainiarreko Hezkuntza Lege Orokorra da oinarrizko araubidea. Hain zuzen ere maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzkoa.

Behin eta berriz ekin izan zaio horrelako lege bat garatzeari Nafarroan, baina une honetan geldirik dugun kontua da hori. Denetara ere, noizbait heldu beharko diogu gaiari. Nafarroa hain ezberdina denez hainbaten begietara, honetan ere ezberdina izanen delakoan.

Beraz, ondotik aurkeztu nahi dugun eskakizunak, berez, lege mailako trataera beharko luke,

baina zuzentzeko legerik ez dugunez, mozio honen bidez saiatuko gara taxutzen Nafarroako Gobernuari egin nahi diogun eskakizuna.

Azkenaldian jakina da jendartean oro har dagoen ezinegona hezkuntza publikoan gertatzen ari diren auzien inguruan. Ezinegona, aurrez aurreko jardunak handitu direlako Bigarren Hezkuntzan. Ezinegona, 15. egunera arte bajak ez direlako ordezkutzen. Beken poltsa jaitsi delako, irakasleen formakuntza etengabe kolokan dagoelako urtez urte partidak txikitzen direlako, teknologia berrietan % 26 murriztu delako, 0-3 ikastetxeen babesak urritu delako...

Ez ditugu jada indarrean jarri diren neurri guztiak hona ekarri nahi, baina zerrenda luzea izan daiteke.

Hori guztia, gainera, jaiotze tasaren azken urte-tako hazkundeak ikasle kopuruak gora egitea ekarri duenean; hain zuzen ere, 2011-2012 ikasturtean aurreko ikasturtean baino % 9 talde berri gehiago eman ditu matrikulazioak.

Hau guztia kontuan izanda, begi bistakoa da zerbaitek kale egiten duela; ikasle kopurua handitzen ari den neurrian, baliabideak gutxitzen ari baitira.

Gutxi balitz bezala, nazioarteko adierazleek argi erakusten digute hau ez dela bidea. OCDEk emandako datuek erakusten diguten moduan, OCDEko herrialdeetan hezkuntzan gastatzen dena Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 5,8 da. Europar Elkartean, berriz, % 5,5a. Nolanahi ere, Espainiar Estatuan dagoen kopurutik oso urrun % 4,5ekoa da, Unibertsitatea aintzat hartzen

badugu. Unibertsitate gastuak kenduta, % 3,28koa da hezkuntza orokorreko gastua.

Behin eta berriz alderatzen dugu hezkuntza kontuetan geure burua, geu baino okerrago dau-denekin. Baina geure erreferente izan beharko luketen horiek urrun daude guk, egun, hezkuntzan dugun diru gastutik.

Atzeraldi egoeran, krisi egoeran, langabezia etenik gabe gora doan egoeran, ezinbestean jendartearen malgutasuna eskatzen da. Jendarteari esfortzu handia eskatzen zaio birzikla dadin edota ikasten ari direnen kasuan ahalik eta modu egokien forma daitezten. Hezkuntzaren kalitatea da horretarako bermerik handiena, irakasle prestatuak eta gaituak, eskola maila prestatuak eta gaituak emateko. Hori da, azkenean, kalitatea bermatzeko formularen lehenengo oinarria.

Esanak esan, beraz, derrigortuak gaude inoiz baino kontu handiagoz eta zaintza handiagoarekin babestera geure hezkuntza sistema publikoa.

Gauzak honela eta aurretik esandakoa gauzatu dadin, Bildu talde parlamentarioak honako erabaki proposamena egiten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du, urterik urte, Nafarroako Aurrekontu Orokorren Lege Proiektua taxutzerakoan, Nafarroako Hezkuntzarako aurrekontu esleipenaren goranzko progresioa bermatzera, herritarrei eskainiko zaien zerbitzu publikoa etengabe sendotu, hobetu eta zabaltze aldera.

Iruñean, 2011ko urriaren 13an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tracasarentzat hegazkin bat eta material fotografikoa erosteko eginiko inbertsioari eta horren errentagarritasun-mailari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako galdera, Tracasarentzat hegazkin bat eta material fotografikoa erosteko eginiko inbertsioari eta horren errentagarritasun-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barneko kontseilari Roberto Jiménez jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Tracasa enpresa publikoak inbertsio oso garestiak egin zituen, bere enpresa-jarduerarako material fotografikoa eta hegazkin bat erosten. Gastu horren bolumena ikusita, parlamentari honek ondoko galdera egin nahi du:

Zein izan zen hegazkina eta filmazio-materiala erostearen inbertsio osoa? Zein da, bi urteko lanaren ostean, errentagarritasun-maila?

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, etxebizitza libre edota prezio mugatukoetarako laguntzak edo kenkari fiskalak indarrean egoteari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako galdera, etxebizitza libre edota prezio mugatukoetarako laguntzak edo kenkari fiskalak indarrean egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernu-ko Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi, Legebiltzar honetan 2011ko irailaren 21ean egindako agerraldiaren kariatara, Sustapen eta Etxebizitzako kontseilari Astiz jaunak adierazi zuen litekeena dela etxebizitza babestura-

ko zuzenean nahiz zeharka ematen ari diren laguntzak desagertzea. Hori dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

2012rako aurrekontuetan, indarrean jarraituko al dute etxebizitza librerako indarrean diren laguntza eta kenkari fiskal guztiek, zehazki etxebizitza libreei edo prezio mugatuko etxebizitzetarako dagokionez?

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, administrazio kontseiluetara joateagatik ordainsariak edo dietak kobratzen dituzten Gobernu kide eta zuzendaritza-karguei buruzkoa.

SANTIAGO CERVERA SOTO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santiago Cervera Soto jaunak aurkeztutako galdera, administrazio kontseiluetara joateagatik ordainsariak edo dietak kobratzen dituzten Gobernu kide eta zuzendaritza-karguei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Santiago Cervera Soto jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak egiteko ohorea du, Nafarroako Gobernu-ko Lehendakari kontseilari Roberto Jiménezek idatziz erantzun ditzan:

Espainiako Alderdi Sozialistako zenbait buruzagik "politikari bat, soldata bat" printzipioa enuntziatu dute, argudiatuz jardun politikoa gidatu behar duen araua dela kargu publikoen ordainsarien alorreko gardentasuna.

Jakina denez, Nafarroan, Gobernu-ko zenbait kide enpresa publikoetako kontseilari ere badira, eta beste horrenbeste gertatzen da Foru Komunitateko administrazioan izendapen libreko beste zuzendaritza-maila batzuetan ere. Halatan, dietak jasotzen dituzte modu erregularrean zenbait administrazio kontseilutako kide izateagatik, halako moduan non aldibereko diru-sarrerak dituzten horregatik eta Gobernuaren barruan karguak izateagatik, Nafarroako iritzi publikoak nekez ezagutzen duen sistema opaku batean.

Orobat jakin da Gobernu-ko zenbait kide "Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarra" deiturikoan eta organo bereko ustezko "batzorde iraunkor" batean daudela; "soldataren parte" gisa, Gobernu-ko bigarren lehendakariordearen hitzetan.

Hori dela-eta, ondokoa galdetzen diogu Nafarroako Gobernuari, eta zehazki lehen Lehendakariorde eta Lehendakari kontseilariari:

– Gobernu-ko zer kidek jasotzen dituzte edozein motatako ordainsariak edo dietak, bere kargua dela-eta kide diren administrazio kontseiluetara joateagatik?

– Foru Komunitatearen administrazioko zer beste zuzendaritza-kide daude egoera horretan berean?

– Zein da, onuradun bakoitzari dagokionez, jasotako ordainsarien xehetasuna?

– Nafarroako Kutxako "Entitate Sortzaileen Batzarra" deiturikoari dagokionez, Gobernu-ko zer

kidek jasotzen dituzte ordainsariak Batzarreko kide izateagatik edo entitate horrekin lotutako beste edozein arrazoiengatik, esate baterako "lan-bileretan" egoteagatik? Zeintzuk dira gaur arte ordain-

dutako zenbatekoak, Gobernuko kide onuradun bakoitzaren kasuan?

Iruñean, 2011ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Santiago Cervera Soto